

84. EUSKAL SOZIOMETROA (2024ko azaroa) Prensa oharra

SARRERA

84. Euskal Soziometroa 2024 urteko hirugarren eta azkena da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak. Landa-lana 2024ko azaroaren 5etik 8ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Balorazio positiboa norberaren egoeraz eta Euskadikoaz

EAEko biztanleen % 66k uste dute Euskadiko **egoera politikoa** ona edo oso ona dela, eta balorazio hori ez da aldatu 2021etik. Espainiako egoera politikoa askoz ere negatiboagoa da, eta okerrera egin du azken hilabeteetan. Euskal biztanleriaren % 17k soilik uste du ona edo oso ona dela, eta % 82k txartzat edo oso txartzat jotzen du (martxoko azken soziometroan baino hamar puntu gehiago).

Egoera ekonomikoaren balorazioa 2002an bilduma hasi zenetik erregistratutako bigarren positiboena da. % 78k uste du Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela, eta % 20k soilik txarra edo oso txarra dela. Kasu horretan ere, Espainiako egoera ekonomikoaren balorazioa ez da hain positiboa: % 38k uste du ona edo oso ona dela, eta % 58k txarra edo oso txarra dela; hala ere, kasu horretan ere, datuak bildumako onenen artean daude 2006tik.

Egoera ekonomiko pertsonalaren balorazioa ere positiboa da Euskadiko herritarren artean; % 76k uste du bere egoera ona edo oso ona dela. Balorazio hori ere Europar Batasuneko herrialdeen batez bestekoa (% 72) baino positiboagoa da.

Euskadiko arazo nagusiei dagokienez, gizartearen kezka nagusia lan-merkatuarekin lotutako arazoekin lotutakoa da, nahiz eta 2021az geroztik beheranzko joerarekin jarraitzen duen. Biztanleriaren % 45ek hiru arazo nagusietako bat bezala aipatzen du; jaitsiera nabarmena da 2021eko % 61etik.

Bigarrenik, etxebizitzarekin lotutako arazoak daude, herritarren % 38k aipatu baititu, aurtengo otsailean baino 13 puntu gehiago. 2008tik, etxebizitzaren gaia ez zen toki horretan kokatzen.

Hirugarrenik, osasungintzarekin lotutako arazoak daude (% 32), aurreko soziometroarekin alderatuta zertxobait gutxiago aipatu direnak (% 35).

Aitzitik, gora egin dute, eta laugarren lekuan jarri dira delinkuentziarekin eta herritarren segurtasun ezarekin lotutako arazoek (% 19). Immigrazioarekin lotutako arazoek ere goranzko joera erakusten dute, bosgarren lekuan kokatuz (% 16), eta egoera ekonomikoarekin lotutakoek, berriz, behera egiten dute (% 14).

Neurri txikiagoan aipatutako beste arazo batzuk honako hauek dira: egoera politikoa eta politikoak (% 13), zerbitzu publikoen eta laguntzen funtzionamendua eta estaldura (% 9), edo hezkuntza (% 8).

Herritarren % 69k uste du Euskadiko **zerbitzu publikoak** nahiko onak edo oso onak direla, eta % 28k nahiko edo oso txarrak direla. Euskadik leku nabarmena du Europar zerbitzu publikoen balorazioari dagokionez, 5 herrialdek baino ez baitute balorazio altuagoa.

Zerbitzu publikoek datozen urteetan izango duten bilakaerari buruzko **itxaropenei** dagokienez, % 36k uste dute hobera egingo dutela Euskadin, eta % 22ra jaisten da Espainian hobekuntza espero dutenen kopurua, eta % 28ra Europako gainerako herrialdeetan zerbitzu publikoek hobera egingo dutela espero dutenena.

Enpresa pribatuek **kudeatutako zerbitzu publikoekin** alderatuta, % 40k uste du administrazio publikoek kudeatutako zerbitzuak hobekien direla, eta % 29k uste du biak berdinak direla. Inkestatutako pertsonen % 26k uste du enpresa pribatuek kudeatutako zerbitzuak hobekien direla.

EUSKO JAURLARITZA BERRIA

Herritarrek konfiantza dute Eusko Jaurlaritza berriarengan

Imanol Pradalesek, Eusko Jaurlaritzako **Lehendakari** berriak, lider politiko bati dagozkion ezaugarri guztietan jaso du oniritzia: Herritarren ustez elkarriketarako irekia da (10etik 5,9), zintzoa (5,5), konfiantza ematen du (5,3) eta eraginkorra da (5,2). Azken batean, lider ontzat jotzen da (5,3).

Herritarrek konfiantza dute, halaber, **Eusko Jaurlaritza berrian** (5,4, 0tik 10erako eskalan), eta 5etik gorako kalifikazioak lortu ditu baloratutako alderdi guztietan: akordioak lortzeko gaitasuna (5,8), kudeatzeko gaitasuna (5,7) eta ekimena (5,5). Gainera, erdiek uste dute Eusko Jaurlaritza berriak ezagutzen dituela herritarren benetako beharrak (% 50), eta gehienek uste dute baduela behar horiei erantzuteko gaitasuna (% 72).

Herritarrek espero dute Eusko Jaurlaritza berriaren **lehentasunak** osasun-zerbitzuak (% 44), etxebizitza (% 32) eta langabeziaren eta lan-prekarietatearen aurkako borroka (% 31) izatea. Urrunago, baina modu nabarmenean, egoera ekonomikoari bultzada bat emateko eta euskal herritarren bizi-kalitateari eusteko eskatzen zaio (% 15), baita segurtasunari (% 14), gizarte-babesari eta laguntzen kontrolari (% 13) eta hezkuntzari (% 13) ere. Aipatutako beste eskari batzuk dira: herritarrei entzutea (% 10), immigrazioa (% 7), zerbitzu publikoen funtzionamendua eta estaldura oro har (% 6), egoera politikoa eta akordioak lortzea (% 6), etab.

Oro har, eta orain arte egindako lana kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritza berriak **balorazio** positiboa jaso du halaber herritarren aldetik, eta lehen hilabete hauetan egindako lanari hamarretik 5,4ko puntuazioa eman diote.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Independentziaren aurkako ehunekoak gora egin du

Biztanle gehienek (% 60) **politikarekiko interes gutxi edo batere interesik ez** dute oraindik, baina interesa handitzen ari da 2010etik. Une hartan, biztanleen % 20k oso edo nahiko interesatuta zeudela zioten, eta ehuneko hori handituz joan da, egungo % 40ra arte.

Sinpatia politikoei dagokienez, EAJ da begikotasun handiena duen alderdia, goranzko joera argiarekin, eta gainditzen duen alderdi bakarra da, 5,0 punturekin 0tik 10erako eskalan. Ondoren datoz, EHBildu (4,3), PSE-EE (4,2), SUMAR (3,2), PP (1,9) eta, azkenik, Vox (0,9).

Buruzagi politikoen ezagutza ohiko mailetara hurbiltzen ari da, azken hauteskunde autonomikoetan ia alderdi guztietan zerrendaburuak aldatu ondoren. Horrela, Imanol Pradales lehendakariaren ezagutza % 77koa da; bai Pello Otxandiano eta bai Eneko Andueza, berriz, ezagunak dira % 51rentzat. Javier de Andrés (% 40) da hurrengo lider ezagunena, eta Amaia Martínez (% 25) eta Jon Hernández (% 15) oraindik nahiko ezezagunak dira.

Balorazioei dagokienez, Imanol Pradales lehendakaria da baloratuena (5,4), eta bere balorazioak nabarmen egin du gora lehendakaria denetik (martxoko 4,9tik oraingo 5,4ra). Pello Otxandiano da (5,3) balorazioan oniritzia lortu duen beste lider bakarra. Ondoren, Jon Hernandez (4,5) eta Eneko Andueza (4,4) datoz. Balorazio txikiena jaso dutenak Javier de Andrés eta Amaia Martínez izan dira, hamarretik 3,0 puntuko balorazioekin.

Herritarren % 42 "euskal herritar bakarrik" edo "euskal herritar espainiar baino gehiago" **sentitzen** dira, eta beste % 42 "euskal herritar bezain espainiar". Azken horien ehunekoa nabarmen igo da aurreko soziometroekin alderatuta. Bitartean, herritarren % 8 baino ez dira "espainiar euskal herritar baino gehiago" edo "soilik espainiar" sentitzen.

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 19 **independentziaren** alde daude, % 33 egoeraren arabera alde edo kontra egongo liriateke, eta % 43 aurka daude. Azken soziometro honetan nabarmen egin dute gora independentziaren aurkakoek, bildumako ehunekorik altuenera iritsita.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa \pm % 1,8koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2024ko azaroaren 5etik 8ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 26a